

ESKOLA-HIZTEGIA. IRUDIDUNA

Igazko KARMEL aldizkariaren azken alean «*Bostak bat*» taidekook atera berri genuen *Euskararako Hiztegia*. Oinarzkoa zeritzonaren berri ematen genuen eta bertan gure aurreko hiztegiarekin (*Euskararako Hiztegia*[^] 1986) gonbaraketa eginez, besterik beste, honako aurrerakuntzak egin genituela gogoratzten:

- a) Hiztegi berria euskara hutsezko hiztegia zen, aurrekoak (*euskararako biztegiak*), inguruetako hizkuntzen parekideak zekartzala, zeukan bigarren aldeko atalik gabe.
- b) Oinarrizkoaren taiura askoz ere erabilkorragoen aurkeztua ageri zen, aurrekoa handiegia gertatzen baitzen haurrentzat.
- c) hala ere, alor gehienetan aurrekoa baino aberatsagoa zen: 3.191 sarrera, 3.241 adlbide, 1.468 adlera, 1.819 sinonlimo eta 304 IKUS geMago zituen. Guztira 16.427 sarrera, 8.686 adibide, 4.527 adiera, 4.779 sinonimo zituen hiztegia gertatu zelarik.
- d) Lan guzti hori burutzerakoan, lehenengo hiztegia (*Euskararako Hiztegia* -1986 egin genuenean erabilitako iturrietan, leku eta asti ezaren zioz kanpoan utzitako hitzak zein beste iturri berri batzutakoak eskuratu genituen.

- e) Era bereah, goitik beherako orrazketa eman genion bertako idazkera, azalpen eta gainerakoak zehazkiro aztertuz, alor guzti horietan ziurtasun handiko hiztegia bilakatu delarik. Aparteko arretaz aztertu genituen gramatika alorra isladatzen edo aurkezten zuten hitzen definizioak.
- 0 Hitzen kopurua ugaritzean (inoiz ere ez genuela oraindik hiztegi orokorrik egiteko asmorik) aurrekoan baino toki handiagoa egin genien, baita ere, euskalki mailan hedadura zabala zuten hitzei, aurrekoan IKUS zutela zetozten hainbat definituta eskainiz.
- g) Irudiei zegokienean, aurrekoan erabilitakoakjaso genituen, bestelako aldaketarik gabe, ezinbesteko zuzenketak eginda.

Horrela euskaraz egokiro hornitutako «*Oinarrizko Hiztegi*» bat burutu ahal izan genuen, Ikastetxeetako ikasle-irakasleentzat zein euskara ikasten diharduten adineko pertsonentzat tresna hobezina gertatu izan delarik.


Orain beste hiztegi bat (ESKOLA-HIZTEGIA. Iradiduna) kaleratu dugu. Taiueraz aurrekoaren (*Euskararako Hiztegia. Oinarrizkodl* antzerakoa; hala ere, haren haritik etorri den arren, zenbait bereizketa dituena.

Oinarrizkoa egiteko sarrerak aukeratzekoan, maiztasunaren erizpidea erabili bagenuen ere, sarreraren kopurua zein beraien barruko edukina ugaltzea izan genuen helburu.

Oraingoan, ostera, murrizketa egin beharra izan dugu sarrerei dagokienean, eskola munduko beharrian zehatzei erantzuteko muga estu barruan ihardun behar izan dugulako. Hain zuzen ere, izenak berak ekarten digu, bat-batean, gogora hiztegi honi jarri. diogun jantzi estu horren berri: ESKOLA HKTEGIA, IradidhMia.

1. Helfouraak:

Orain argitara eman dugun hiztegia egiterakoan, eskoletako haurrentzat egokiro eginiko hiztegi bat eskaintzea izan dugu abiaburu zein helburu.



Sarritan, hitz ugari eskaintzeak ez du argi gehiagorik ematen, ezinbestekoak direnei behaztopo gertatzen diren gehigarri ugari ere biltzen zaielako. Bestalde, haurren hizkuntz-ezaguera, ezaguna dugunez, nahikoa mugatua izan ohi da.

Haurrak pixkanaka-pixkanaka jasoten ditu adiera zein hitz berriak. Hori dela eta, haurraren heziketa bilakaera urtez-urte burutzen denez, une honetan eginbidean den irakaskuntzaren berrantolaketari egokitutako hiztegia egin nahi izan dugu.

Denok dakigunez, aurrerantzean nahitaezko irakaskuntza (orain arte izan dituen *Eskolaurrea*, *hasiera zikloa*, *erdiko zikloa eta goi zikloa* deituen orde) hiru zutabe handi hauen «*Haur Hezkuntza (0-6)*, *Lehen Mailako Hezkuntza (6-12)*, *Derrigorrezko -Bigarren Hezkuntza** antolatuta egongo da.

Guk, hiztegi hau egiterakoan, guztiz beharrezkoa diren *Haur Hezkuntza zein Lehen mailako Hezkuntzaren* hizkuntza. beharizanezi erantzun nahi izan diegu, *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarakoa* eginbidean dugularik.

Gure helburua, beraz, irakaskuntzako *lehen mailarako hiztegi aproposa egitea* izan da, era berean, oso baliagarria gertatuko zaielarik, metodoaren azalpenean aditzera ematen diren zioak direla bide, irakaskuntza alorretik kanpo euskara ikasten ari diren guztiei ere.

2, Metodoa

Aipaturiko helburuari zehazkiro erantzuteko, lehen eta behin metodo egokia bilatu eta taitzeari ekin genion. Abiabidea bi zutabetan oinarritu dugu: -

- 1a) Hurrek eskola urte horietan (12 iirterartekoetai) garatzen deesi heziketa-foilakaeran eskola-testuetan zein horbilleko iiigeramariai amurki ditzakeen Mzkuntz beharizanezi erantzutea.
- 2a) Erantzun hori eniaterakoan euskaraz hedaclurarik Jhaodiena dutei Mtzak erabiiiz egitea, haurra

Mzkuntza afoerasten ari den adinean euskal munde zabalaren Jabe ere egin dadin.

Horrek, zer esanik ez, aipatururiko alor bi horiek zehazkiro aztertzea eskatu digu eta horretan saiaturaz burutu hiztegi hau.

1. *Kontzeptuen hautaketa*: Lehen eta behin, esan dugunez, haurrek eskola munduan zein inguru hurbileko giroan aurkituko dituzten kontzeptuak zein hitzak zehazkiro jaso eta ongi definituz eman beharra dago.

Hori lortzeko honako urratsok eman ditugu:

- a) Eskola munduko adierak zeintzu direnjakiteko, Espainiako irakaskuntza alorrean (gure arteko irakaskuntza, guk nahi edo nahi ez, estatukoan oinarrituta baitago) egin izan diren ikerlanak izan ditugu kontutan. Horrela, eskoletan, 12 urte arteko irakaskuntzan agertzen diren 9-000 kontzeptu ezberdin inguru bildu ditugu. .
- b) Baina, haurrek eskolatik kanpo egiten dituztenez beren eguneko ordurik gehienak, batez ere asteburuak kontutan hartzen baditugu, ezinbestekoa gertatzen zaigu eskolako hizkuntza mugatuaz gainera, bizi den ingurukoa (etxekoa, auzokoa, kalekoa,...) ere kontutan hartzea. Hori dela eta, eskola eremuan agertu ezarren, eguneroko bizitzan maiz agertzen diren kontzeptuak ere jaso ditugu. Horrela atera zaizkigu, aurreko zerrenda osatu duten beste 1.200 hitz inguru.
- c) Azkenik oso hitz teknikoak izan arren beste 900 hitz inguru ere sartu behar izan ditugu, definizioak egiterakoan erabili beharrean aurkitu garelako.

Erabilitako hautaketa-lan zehatzaren bidez, eskola-tiMindoa eta gizarteko eguneroko girokoa uztartu nahi izan ditugu maiz arriskurik handiena haurra bere girotik kanpo hartzeak ekarri izan duelako.

Eta honetan euskal girorik aberatsenari eman diogu lehentasuna, hain zuzen ere, bere bizimodu osoa, etxean, kalean zein eskolan euskara hutsean egiten duen haurrenari. Nahiago izan dugu sarrera-hitzen aukeraketa egiterakoan goitik ibili, haur euskaldunentzat eskulabur geratu baino. Horren ondorioz kontzeptuak 10.000 inguru badira ere, sarrerak 11.000 izatera heltzen dira.

2.- *Hitzen hautaketa*: Gogoratu berri dugun kontzeptuen hautaketa egin ondoren, berehala egiten dugu arazo handi batekin topo. Baina, zeintzu dira euskaraz kontzeptu horiek aditzera emateko erabili ohi diren hitzik hedatuena eta erabilienak?

Guztiok dakigu, jakin ere, haurrak ezin dituela bat-batean hitzen arteko zenbait nabardura bereizi. Eta hori euskaraz zein inguruko hizkuntzetan gertatu ohi da. Esaterako, gazteleraz, «robar, liurtar, slsar, expoMar,...» orokorrean kontzeptu berdinak aditzera emateko hitzak izan arren, ez daukate hedadura berdina eta haurrak denak batera ikasi beharrean, entzunenetik (sarritan inguruan hedatua denetik) hasita jasoko ditu, adinean eta ezagutza mailan helduz doan neurrian.

Zein hitz irakatsi edo erabili, baina, lehenen, bigarren edo hirugarren tokian? Hori da, hain zuzen ere, Eskola-Hiztegi honen helburua: adin zein ezagutza egoerari egokituz, 12 urterateko hezkuntza kontutan hartuz, erabili beharreko hitzen hautaketa egitea.

Bestalde, kontutan hartu behar da, baita ere, sarritan, hitz bat baino gehiago ezagutu arren, erabiltzerakoan bakarra erabiltzen dugula, askoz ere hitz beharrezkoagoa bilakatzen zaigulako edo. Honetan zerikusia du, hizkuntz inguru zehatz batetan bizi garenez, norberaren euskalkiak. Hori dela eta, aparteko arretaz tokia egin diegu euskalki nagusienetan bateratsu edota Euskal Herrian zehar hedadura handia dutela erabiltzen diren hitzei.

Hiztegi ham foinratzerakoaji, beraz, arazorik gorriena cdo sakonena, eskoia-niundieko kontzeptuak zein haurraren ingununarikoak aditzera ematerakoan, maiztasuik handieneko diren euskal Mtzak erabiliz egitea izan dugu.

Arazoari irtenbidea bilatzerakoan bide hauetatik zehar aritu gara:

- 1) Aide batetik, orain arte euskaraz eskolako urte hauetarako egin izan diren liburu guztien azterketa sakona eginez eta hitzik erabilienak jasoz. Hori egiteko, Eskolaurreko zerrendetatik hasi gara eta eskoletan erabili ohi diren A, B, D hizkuntz eredu guztietan ageri diren hitzak bildu ditugu, ordenagailu bidez zerrendaketa bakarra lortuz. Esan beharra dago hala ere, eskola-liburuetan hitzen kontrol txikia nabari dela, sarritan, bazterretako hitzak aukeratu izan direla.
- 2) Haurraren inguru hurbileko hitzak bilatzerakoan, ostera, lehendik ere aztertuak genituen iturrietara (horietariko zeinbat iturburu *Euskararako Hiztegia*. Adorez-2 deritzonengan aurki daitezke) jo dugu, geroago kaleratuak izan diren beste zenbait iturritako uretatik ere behar genuena hartuz.
- 3) Azkenik, lehen ere aipatu izan dugun zerbait gogora ekarri beharra dugu, hau da, definizioak egiterakoan erabilitako hitzak definiturik jartzeko ardura ere hartu dugula, bertako hitzen bat ulertu ez eta haurra noraezean ibil ez dadin.

3. *Gramatika txikia*. Hiztegi honi, era berean, hasieran gramatika txiki bat ere erantsi diogu. Bertan (beste zenbait gai jakingarri, hots, *alfabetoa, zenbakien idazkera, ordua euskara, lau eragiketen eskema, kontsonante sahaikarien grafiaz Euskaltzaindiaren erabakia, «H» letraren ortografi arauak, data idazteko erak, atzizkiak eta deklinabideaz gainera*), batez ere, beharizan larriena sortzen digun adizjokoa erabiltzeko adibideak eta aurkibideak ekaini ditugu.

Egia esan, ez daude aditz joko guztiak, gure lan honetan; ezin mugagabe luzatu eta beharrezkoena izaten dugun laguntzailea jaso dugu, berau baitugu egoera guztietara egokitu eta maiz errepikatzen dena. Aditzaren adibideak, jartzerakoan, ostera, pertsona bat baino gehiago agertzen diren jokaldiak hartu ditugu gogoan, pertsona bakarra agertzen denean, hau da «NOK» (madim, zedim, maiz, banlantz, nintzen, naiteke,...) eskemara begiratu behar delarik.

Lagunak guzti horiek hiztegiaren eskaintza behar-beharrezko ez bada ere, oso laguntza handiko gertatzen dira, zalantzarik dugunean nora jo eta non bilatu erantzuna eskaintzen digulako.

4. *Irudiak. ESKOLA HIZTEGI irudiduna* deitu dugun honetan aparteko ahalegina egin dugu irudiei, neurri apaiean baldin bada ere, honelako hiztegi batetan behar duten lekua eskaintzen.

Eskuetan hartu eta orriak zabalduz batera konturatuko gara, aurreko hiztegiaren ez bezala, irudi gehieneak sarrera hitzaren inguruan kokatuta ageri direla. Nahiz eta horrek fotokonposizioa garestitu, urrats hori ere noizbait eman beharra genuela uste izan dugu.

Horretaz aparte, erdialdean koloretan eskainitako horrialde batzu ere baditu. Zer esanik ez haurrentzat eginiko hiztegi batetan ezin muxin egin koloreari. Dena den, oraindik txiro ageri zaigu, guk ez baitugu erdaraz argitaratzen diren liburuek izan ohi duten dim kopururik.

Honetan, sarrerako atean zirrikitutxo bat ireki baino ez dugu egin eta geroak, nonbait, eramango gaitu gure liburuok hobekiago janztera. Zuri-beltzean, multzoko edo orriaideka eginiko irudi sorta bat ere jarri dugu, sarritan gauzak bakarrean ez ezik, elkarren artean erlazioa dutela aurkeztu beharra ere izaten delako.

5. *Adibideak.* Zer esanik ez, garrantzia handia dute honelako hiztegi batetan definizioen alboan eskaintzen diren adibideak. Nolabait, hitzen erabilera nola egin irakasten digutelako.

Oinarrizko hiztegia burutzerakoan, aurrerapausu handia eman genuen alor honetan lehen hiztegian baino 3-241 adibide gehiago sartuz.

Oraingo honetan arreta bereziz jorratu dugu alor hau ere. Hainbat adibide berri geinaratu ditugu, sarrerak gutxitzen eta adibideak ugaritzean askoz ere oreka handiago lortu dugularik.

Hitzen definizioai ezarritako adibideei adizjokoaren erabilera taitzeko erantsi diren milaka adibideak gaineratzen badizkiegu, oso hiztegi aproposa gertatu zaiei zein eskolako haurrei zein euskara ikasten ari direnei. Hiztegi honetara jotzen dutenak, beraz, milaka eta milaka adibide eta era guztietakoak aurkituko ditu bertan.

6. *Nortzurenzat*. Hiztegi honen eskaintza egiterakoan honako hitzok irakur ditzakegu: «*Duela hogeitabost bat urte, lehen ikastolak eta euskalduntze-alfabetatzeko gaueskolak abiatu zirenean, amets ez ihardun zuten euskaltzale finak oroituz, gaur eguneko haur euskaldunei*». Argi dago bada, hiztegi hau batez ere bi jende multzori eskainia izan dela, euskaldun edonorentzat baliagarri gertatuko baldin bada ere:

- a) Gorago esan dugun bezala, hezkuntza-ibilbide luzearen atarian hasi eta lehen aldapak igoten izerditsu ari diren haur euskaldunei, beraien lehen urteetako ibilbidean itsuaurreko edo bidelagun izan nahirik. Zer esanik ez, ez die eragozpen guztiak baztertuko ez eta iluntasun guztiak argituko; horretarako dituzte guraso alfabetatuak zein andereno-maisu lagunak, hiztegi honen helburua ez delako inoren lekua betetzea, edonori laguntza eskaintzea baino.
- b) Era berean, hari-harikoa izango dute euskara ikasten ari direnak zein alfabetatzen dihardutenak ere. Bertan eguneroko bizitzan beharrezkoenak direlako aukeratuta eskaintzen ditugun sarrera-hitzek zein lagungarri gisa jarri diogun gramatika mailako eranskinak laguntza handia emango diela itxaroten dugulako.

Azkenik, oso laguntza handikoa Izan dezakete haurrentzat (0-12 urtekoentzat) testu liburuak zein irakurgaiak (ipuinak,...) idazten dihardutenek. Hurrei euskara erraz eta, eraberean, aberatsez prestaturiko gaiak eskaini alia! izango dizkie hiztegi berri honetan jasotako hitzak bakarrik erabiliz.

3. *ESKOLA-HIZTEGIA. Irudidunaren herezitasunak:*

1. Eskola-haurrentzat (0-12 urte artekoentzat) egina izan da, haur horiek eskolan zein inguruan aurkituko dituzten hizkuntz-beharrizanei erantzuteko. Hori dela eta, oso laguntza handia jaso dezake euskara ikasten zein sakontzen ari direnek ere.

2. Kontzeptuak euskaraz maiztasun handiena duten hitzen bidez ematen saiatu gara. Horrek, maiz euskalki mailako erabilera aztertzea eta kontutuan hartzea eraman gaitu, hizkuntz inguruak eragin zuzena izan ohi duelako haurraren zein ikasten ari den edonorengan.

3--Gramatika txiki bat erantsi diogu, zalantzak ditugunean aterabideak bilatzeko. Aditz jokoaren *aurkibide* bat ere badu eranskin horretan. Izan ere, hiztegi arruntek hitzak non aurkitu eskaintzen dugute, ez, ostera, esaldi barman agertzen diren adizjokoaren era ezberdinak. Hori dela eta erantsi diogu aditz laguntzailearen aurkibidea.

4.-Adibideak hainbatetan ugaritu dira, hitzen erabilerari argitasun ugari eskainiz. Multzo bitan aurkituko dituzu: a) hiztegiaren zehar definizioen ondoan eta b) aditzak zehazki ulertzeko eranskinean jarritako sortan. Euskarak jarriotasunez erabilia izateko beharrezkoak dituen esaldi gehienak jasoten direla uste dugu.

5. irudi gehieneak hiztegiaren zehar, sarrera-hitzaren inguruan banaka tartekatu ditugu. Hala ere, bi sorta eskaintzen dira multzoka, bata koloretan eta bestea zuri-beltzean, bizitzan bertan ere zenbait gauzen artean lotura estuak izan ohi direlako eta

multzoka haurrak hobeki eta errazago ikasiko dituela uste izan dugulako.

LABURBILDUZ: Argitaratu berri dugun hiztegi hau, esan dugun bezaia, bereziki, hamabi urterarteko eskola-haurrentzat egina izan da; bide batez, haur horrek bizi behar duen eguneroko hizkuntz-inguru osoa isladatu nahi duenez, oso lagungarri gertatuko zaie euskara ikasten ari diren adinekoei ere. Norberaren euskalkitik Euskara Baturantz alfabetatzen ari direnentzat ere lagungarri gertatuko dela uste dugu, bertan aurkituko dituztelako Euskal Herri osoan erabiltzen diren hitzak eta, baita ere, prozesu horretan zailenatariko gertatu ohi den aditza ongi ulertzeko bidea zein zalantzarik duenean erantzuna jasoteko aukera.

Patxi Uribarren